

PRAKTIKALDIKO KONTRATUA

Kolektiboa:

- Kontratua hasi aurreko 5 urteetan lortutako titulazioa (edo aurreko 7 urteetan lortutakoa, baldin eta kontratua desgaitasunen bat duen pertsona batekin egiten bada).
- Unibertsitateko titulua edo erdi- nahiz goi-mailako lanbide-heziketako titulua izatea, edo ofizialki baliokidetzat onartutako tituluak, indarrean dagoen hezkuntza-sistema arautzen duten legeen arabera, edota profesionaltasun-ziurtagiria, 5/2002 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera; tituluok jarduera profesionalerako gaitu beharko dute.

Iraupena:

- Gutxieneko iraupena: 6 hilabete. 2 luzapen egiteko aukera izango da, gutxienez 6 hilabeteko iraupenarekin
- Gehienez 2 urte titulazio berberarekin, enpresa berean edo beste enpresa batean.

Jardunaldia:

- Osoa edo partziala.

Ordainsaria:

- Hitzarmenaren arabera: Lanpostu berbererako edo lanpostu baliokide baterako soldataren % 60 gutxienez lehen urtean eta % 75 bigarren urtean, eta inoiz ez lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa.

Oharrak:

- Enpresaburuak ziurtagiri bat emango du, iraupenaren eta kontratua amaitzerako bete beharreko lanpostuen eta egin beharreko zeregin nagusien berri emanez.
- Kontratuan espresuki adieraziko dira langilearen titulazioa kontratuaren iraupena eta bete beharreko lanpostua.
- Probaldia gehienez hilabete izango da maila ertaineko langileentzat edo 1. zein 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiria dutenentzat, eta gehienez 2 hilabete goi-mailako titulua edo 3. mailako ziurtagiria dutenentzat.

Aplikatzeko araudia:

- Urriaren 23ko [2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 11.1 artikulua](#).
- [488/1998 Errege Dekretua](#), martxoaren 27koa.
- [3/2006 Errege Dekretua](#), urtarrilaren 27koa.
- [35/2010 Legea](#), irailaren 17koa.
- [3/2012 Legea](#), uztailaren 6koa.